

# 2011-15 Itaka-Escolapiosen Plan Estrategikoa

## Eginkizuna

Hezkuntza eta ebanjelizazioaren bitartez, gizarte bidezkoago baten eraikuntzan parte hartu, bereziki haur eta gazte ahulen artean. Horrez gain, Eskolapiosen barruti eta fraternitateen arteko eginkizun partekatu instituzionalean plataforma izanez.

## Ikuspegia

Eskolapio esparruarentzat erreferentziatzeko erakundea izan. Eginkizunagatik esanguratsua izanda, Eskolapiosen eginkizuna indartzeko oinarritzeko balioa duena.

## Ildo estrategikoak

- I. **Itaka-Escolapiosen eta euren proiektuetan, era ezberdinetan parte hartzen duten pertsonen zenbakia eta inplikazioa hazi.**
  1. Gure ingurunean eta gizarte orokorrean erreferentziatzat har gaitzaten, kanpoko komunikazio politikan pausuak eman. Horretarako hornitura, publikazioak bultzatzea eta teknologi berrien erabilera hobetzea, izango litzateke.
  2. Eskolapiosen barrutietan gauden ikastetxe eta obretan, Itaka-Escolapiosen ikuspena hobeto ikus daiteke.
  3. Itaka-Escolapiosen ezaugarritzat boluntariora garatzea, inplikazioa eta eskeintza zabalduz eta ahal den heinean pertsona horiei laguntza eta prestakuntza eskeiniz. Hori dena, identifikazioa, konpromisoa, partaidetza, iraupena eta erantzukizun bateratua zainduz.
  4. Bazkide-kolaboratzaileen kopurua handitu, Itaka-Escolapioi laguntza ekonomikoa emateko beste era batzuk eskeiniz.
  5. Gure proiektuetako langileria identifikazioan has daiten, proiektua zehatzaz aparte erantzukizun bateratua, partaidetza eta disponibilitatea sustatuz.
  
- II. **Gure proiektuetako eraginkortasuna eta kalitatea handitu eta iraunkortasunari aurre egin. Horrez gain, ikusitako premietara erantzuna eman nahi diegu ekimen berriak martxan jarri, kudeaketa eraginkorra, argia eta partizipatiboa indartzuz.**
  6. Gure obra eta proiektuetako giltzarri komunetan eta identifikazioan handitzen jarraitu, bereziki gazteen pastoraltza zentroetan.
  7. Itaka-Escolapiosen obra, programa eta proiektuak hedatu, hasitakoak guk hartuz eta berriak hasiz gure ingurunean ikusitakoari erantzuna eskeiniz.
  8. Gure proiektuen etengabeko hobekuntza bultzatu, planifikazio, ebaluazio eta prozesuen kudeaketa bidez. Hau dena, prestakuntza, boluntariora eta generoa zeharkako osagaiak indartzuz.
  9. Gure erakundearen erronkak eta hazkundera kontuan izanik, formakuntza politika egokia garatu. Formazio honek, pertsona guztiak kontuan izan behar ditu eta bereziki buruzagitzak betebeharrak dituztenak.
  10. Gauden egoitza eta herri guztietan finantzaketa-iturriak, bai pribatu bai publikoak, dibertsifikatu.
  11. Bere berezitasunengatik edo erabiltzaileen profilarengatik, sostengu propioa izan dezaketen obra, programa eta proiektuak, horretan jarraitu eta besteek hori lortzeko bidean saiatu.
  12. Kudeaketan aurrera egin, nazioartean hedatzearen, inplikazio juridiko, ekonomiko eta antolakuntzari erantzun zuzena emanez.
  13. Egoitza bakoitzak dituen tokiko berezitasunak eta premiak kontuan izanda, gure proiektuen eleaniztasunean aurrera egin, kalitatea eta gizarte erantzuna ezaugarriak direlako.
  
- III. **Itaka-Escolapios sare bezala indartu, barruti eta fraternitateen arteko estekadura instituzionala oinarrituz.**
  14. Itaka-Escolapiosek barruti eta fraternitateekin dituen akordioak eguneratuak izan.
  15. Barne komunikazio politikan eta egituratzeko eratan aurreratu, gaurko hazkundera eta erakundearen etorkizuna beti kontuan izanda.
  16. Itaka-Escolapioekin eginkizuna partekatzeko asmoa duten barruti eta fraternitateekin, informazio politika egokia izan.
  17. Itaka-Escolapios dagoen leku guztietan, identitatean hazi eta egoitzen arteko erantzukizun partekatua ezarri.
  18. Itaka-Escolapiosen tokiko taldeak eta hauek eta talde orokorreko koordinazioa finkatu.
  19. Helburu berdinekin dituzten sare eta plataformekin, lekuko presentzia eraginkorra eta iraunkorra mantendu.
  20. Gure organizazioa egokitu, barruti eta fraternitateen konfigurazioan egongo diren aldeketeei erantzuna emateko.

¿Dónde?

Sedes

Aragón

Logroño, Soria, Zaragoza

Bolivia

Anzaldo, Cocapata, Cochabamba  
Morocomarca

Brasil

Belo Horizonte, Governador Valadares,  
Serra

Camerún

Bafia, Bamenda, Bamendjou, Bandjoun,  
Yaoundé

Emaús

Bilbao, Córdoba, Granada, Pamplona,  
Sevilla, Tafalla, Tolosa, Vitoria

India

Aryanad, Bangalore, Kamda

Valencia

Albacete, Valencia

Venezuela

Barquisimeto, Carora, Caracas, Valencia

Otras presencias

Filipinas  
Argentina  
Centroamérica y R.D.  
(Madrid)

¿Qué?

Obras, programas, proyectos

Centros de pastoral con jóvenes

Oficinas de atención

Escuelas de educadores

Hogares

Internados

Albergues, casas de convivencias

Centros socio-educativos

Apoyo a centros escolares

Comedores infantiles

Alfabetización y apoyo escolar

Presencia en barrios

Trabajo en red y alianzas con otras entidades

Oficinas de cooperación

Voluntariado y envíos de larga duración

Acciones de sensibilización

¿Cómo?

Equipos

Patronato

Consejo Asesor

Comisión Ejecutiva

Convocatoria

Formación

Gestión

Comunicación

Áreas transversales

Equipos de proyecto

Generales

Locales

Equipos de sede

Demarcacionales

Locales



**ORGANIGRAMA**